

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEGUTIOKO UDALA

#### Irabazteko xederik gabeko elkarte soziokulturalei 2024rako dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak

Udalbatzak, 2024ko martxoaren 15ean egindako ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen onespena ematea irabazteko xederik gabeko elkarte soziokulturalentzako 2024rako dirulaguntzen deialdiaren eta dirulaguntzak ematearen oinarriari, zeinen testu osoa argitaratzen baita, denek jakin dezaten.

Behin betiko ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du.

Errekurtsoak.

Interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Hala ere, alde aurretik, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote alkate honi, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Aurrekoek gain, egoki irizitako beste edozein errekurtsio ere aurkeztu ahal izango dute.

Oinarrien testu osoa eranstean da argitaratzeko, eta 30 egun naturaleko epea ematen da, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, interesa dutenek laguntza ekonomikoak lortzeko eskaerak aurkeztu ditzaten, beharrezko dokumentazio guztiarekin batera.

Legutio, 2024ko uztailaren 3a

Alkatea

NEREA BENGOA GARCÍA DE CORTÁZAR

#### Irabazteko xederik gabeko elkarte soziokulturalei 2024rako dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak

##### 1. Deialdiaren xedea

Behar den bezala legezaturik dauden elkarte eta klubek udalerrriaren esparruan 2024erako sustatutako edo udalerrirako interesgarriak izan daitezkeen jarduera soziokulturalek eragindako gastuak finantzatzen laguntzea, aurrekontuaren mugen barruan.

Baztertutako erakundeak: elkarteak, taldeak eta antzekoak, helburuen artean kultura izaerako jarduerak lehentasunik ez dutenean eta burutzen dituzten jarduerak kultura izaerakoak ez direnean.

##### 2. Onuradunak

Irabazteko xederik gabeko elkarteak izan ahal izango dira dirulaguntza hauen onuradunak, baldin eta sozietatearen egoitza Legution badaukate eta legeak ezarritakoaren arabera eratu eta erregistratu badira.

Ez dira izango dirulaguntzaren onuradunak azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 13. artikuluan ildo horretan ezarritako gorabeherak betetzen dituzten eskatzaileak.

### 3. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Kultura elkarteek proposatutako kultura programen barruko jarduerak antolatzean sortutako gastuak, jarduerak elkarteak kokatuta dauden udalerrirako edo herritarrentzako badira, eta 2023. urtean garatu beharreko egutegi zehatza badaukate, tartean tailerrak, kontzertuak, jardunaldiak, antzezlanak, leku turistikoak bisitatzea, eta, oro har, kultura sustatzeari lotutako jarduerak.

Ez dira diruz lagunduko otorduak, dastatzeak, edariak eta material suntsikorra. Autobus bidaietarako dirulaguntzari dagokionez, merkatuko gutxieneko prezioa lagunduko da diruz.

### 4. Aurrekontu kreditua

Legutioko Udaleko aurrekontuan irabazteko xederik gabeko gizarte eta kultura elkartei bideratutako 330.481.010 dirulaguntzen aurrekontu aplikazioa aurreikusi da. Programa honen bidez deitutako laguntzen zenbatekoa, 2024ko ekitaldirako, 18.000,00 euro da. Elkarte bakoitzeko 8.000,00 euroko muga ezartzen da, eta ezingo da gainditu esleitutako zenbatekoa (18.000,00 euro).

### 5. Dirulaguntzen izaera

Dirulaguntzak ematea borondatezkoa izango da; hortaz, ez da inolako betebeharririk izango deialdi honetako oinarriak betetzen dituzten eskaera guztiei dirulaguntza emateko.

### 6. Dirulaguntza emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka prozedura izango da, eta, horretarako, eskaerak alderatu egingo dira, betiere Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean adierazitako printzipio hauek bermatuta: publizitatea, lehia, gardentasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eraginkortasuna eta efizientzia.

### 7. Dirulaguntza eskabideak balioesteko irizpideak

Hauek izango dira dirulaguntzak emateko balioespen irizpideak:

a) Aurkeztutako proiektuaren kalitatea. Gehienez 30 puntu:

Proiektuaren oinarria. Lortu nahi diren helburuen deskribapen koherentea eta argia. 10 puntu.

Jarduerak planifikatzeko metodologia, gauzatze egutegia barne. 10 puntu.

Jardueren zehaztasun maila. 4 puntu.

Jarraipena eta ebaluazioa. 4 puntu.

Beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak berariaz zehaztea. 2 puntu.

b) Proposamenaren bideragarritasuna: proposatutako programaren eta horretara bideratutako baliabide ekonomikoen arteko oreka. 10 puntu.

BIDERAGARRITASUNA	HAZTAPENA
Egokia	10
Arrunta	5
Eskasa	0

c) Jarduerak euskararen hedapenari egindako ekarpena, 20 puntu, gehienez.

EUSKARA	HAZTAPENA
Egokia	20
Arrunta	10
Eskasa	0

d) Beste erakunde batzuei eskabideak egin izana egiaztatzeagatik: 10 puntu, gehienez.

- e) Jarduerak kulturean eta gizartean duen eragina. 10 puntu.  
Inpaktu kulturala elkartearen barruan eta kanpoan. 5 puntu.  
Inpaktu soziala: proiektuaren onuradunak, xede den publikoa. 5 puntu.
- f) Berdintasunaren sustapena eta gizarteratzea garatzeagatik, 10 puntu gehienez.
- Genero-berdintasuna sustatzen duten ekintzak garatzea: 5 puntu.
  - Kulturartekotasuna sustatzen duten ekintzak garatzea: 5 puntu.
- g) Elkarte berak aurreko urteetan eskatutako dirulaguntzen asebetetze maila, parte hartzea, behar bezala justifikatzea eta gastua benetan egin izana: 10 puntu gehienez.

AURREKO DIRULAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA	HAZTAPENA
Egokia	10
Arrunta	5
Eskasa	0

#### 8. Dirulaguntzen kopuruak, izapidetzeko erakunde eskudunak, dirulaguntzak ematea proposatzea eta ebaztea

Dirulaguntzak aurkeztutako eskaeren balioespenaren arabera izango dira.

Kultura Batzordeak egingo du balioespena, kultura eta euskara teknikariaren laguntzarekin, eta batzorde horrek txosten bat egin beharko du elkarteek aurkeztutako eskaerei buruz, bai eta aurreko urteetan emandako dirulaguntzen zerrenda ere.

Batzordeak, txostenean eta eskabideetan oinarrituta, eskabide bakoitza balioetsiko du, eta horietako bakoitzari 0 eta 100 puntu bitarteko balioespena emango dio.

Irizpide bakoitzari dagozkion puntuen batuketak guztirako kopuru bat izango du emaitza, eta ondoren azaltzen den eskalara ekarrita, dirulaguntzaren gehieneko ehunekoa adieraziko du, aurkeztutako aurrekontuaren arabera.

PUNTU KOPURUA	DIRULAGUNTZAREN EHUENKOA, GEHIENEZ
0 - 25	ehuneko 0
26 - 55	ehuneko 30
56 - 70	ehuneko 60
71 - 100	ehuneko 80

Balorazio horretan oinarrituta, diruz lagunduko diren jardueren zerrenda egingo da, eskatutakoa eta 2024eko ekitaldiari dagokion aurrekontu partidan dagoen aurrekontua oinarri hartuta.

Dagoen aurrekontu partida aurkeztutako eskaeren artean banatuko da, eskaera bakoitzak lortutako balioespenaren arabera, eta, horren ostean, Kultura Batzordeak alkateari bidaliko dio.

Alkateak emango du behin betiko ebazpena, dekretu bidez, eta erabaki horren berri emango dio Udalbatzari egiten den hurrengo bilkuran.

#### 9. Eskaerak aurkezteko modua, epea eta tokia

Dirulaguntzen eskaerak eredu ofizialaren arabera egingo dira (I. eranskina, [www.legutio.eus](http://www.legutio.eus) web orrian eskuragarri), eta Legutioko Udalaren egoitza elektronikoa aurkeztu beharko dira ([www.legutio.eus](http://www.legutio.eus) web orrian).

Eskaerak eta dokumentu osagarriak aurkezteko, 30 egun naturaleko epea izango da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaera orrian edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsen bat badago edo agiri horiek osatu gabe badaude, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei antzemandako akatsak zuzentzeko, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe horren ondoren akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da.

Elkarte bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du.

#### **10. Eskabidea osatzeko dokumentazioa**

Eskabideekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Ordezkarri gisa jarduten duela egiaztatzen duen agiria, nola eta izenpetzen duena erakundearen lehendakaria bera ez den.

b) Erakundearen estatutuen fotokopia eta Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Erakundearen Erregistroan legea betez eratuta egotearen ziurtagiria (baldin eta ez bada aurkeztu beste deialdi batzuetan).

c) Elkartearen identifikazio fiskaleko kodearen kopia, baldin eta aurreko deialdietan aurkeztu ez bada.

d) Ofizioz egiaztatuko da, kontrakoa adierazi ezean, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla (III. eranskina).

e) Jardueraren proiektua; honako hauek azaldu behar dira, banan-banan:

Lortu nahi diren helburuak.

Gauzatze egutegia.

Programaren edo jardueraren kostu banakatua.

Deialdi honetatik kanpo kudeatuko diren baliabideak.

Beste erakunde batzuen dirulaguntzak (Aldundia, etab.). Kopurua ezagutzen ez bada, aurreko urtean lortu den ala ez eta diruz lagundutako kopurua zenbatekoa izan den zehaztu beharko da.

Jarduera bakoitzeko sarrerak.

Bazkide bakoitzak ordaindu beharreko kuota.

Taldekiedeen zerrenda, sexuaren arabera bereizita.

f) Elkarteak titular gisa duen kontua, banku erakundeak behar bezala ziurtatua (aurreko deialdietan aurkeztu ez bada). (IV. eranskina).

g) Legezko ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, elkartearen dirulaguntzak jasotzeko gaitasungabetua ez dagoela adierazten duena. (II. eranskina).

h) Erantzukizunpeko adierazpena, dirulaguntza eskaeraren xede den proiekturako beste erakunde publiko zein pribatu batzuek emandako edo erakunde horiei eskatutako dirulaguntza edo laguntzena. (III. eranskina).

Onuradunek beren gain hartzen dute egiten dituzten jarduerari buruzko datu eta agiriak emateko konpromisoa, Legutioko Udalak hala eskatzen dienean.

#### **11. Dirulaguntzak emateko instrukzioa, proposamena eta ebazpena egiteko eskumena duten organoak**

Dirulaguntzak alkateak emango ditu, norgehiagoka bidez, kiroletako informazio batzordeak proposatuta, eta udalbatzak dagozkion oinarriak onetsi ondoren. Proposamen hori egiteko, batzordeak egokitzen jotzen duen aholkularitza tekniko eskatu ahal izango du.

Informazio batzordeak ezin izango du inola ere proposatu oinarri arautzaileetan ezarritakoa betetzen ez duten dirulaguntzak ematea.

Zalantzarik egonez gero oinarri hauek interpretatzerakoan, Legutioko Udalaren Kultura Batzordeak argituko du.

## 12. Ebazteko epea

Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gehieneko epe horretan ebazpenik jakinarazten ez bada, interesa dutenek ulertu beharko dute dirulaguntza emateko eskaera administrazio isiltasunaren bidez ezetsi dela.

Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du eta haren aurka interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango diote alkateari hilabeteko epean, ebazpen hori ematen denetik aurrera; bestela, zuzenean aurkeztu ahal izango dute administrazioarekiko auzi errekurtsoa Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean. Horrek guztiak ez du eragozten interesdunak egoki deritzon beste edozein errekurtso ere aurkeztea.

## 13. Dirulaguntzak ordaintzea

Elkarte dagozkion dirulaguntzak zehaztu eta gero, honako banaketa honen arabera ordainduko dira:

– Dirulaguntza ordainketa aurreratu bidez ordainduko da, justifikatu aurretik, programa garatzen hastean diruz lagundutako kopuru osoaren ehuneko 75 ordainduz; ez da beharrezkoa izango bermea jartzea, jarduerak interes soziala dutelako. Nolanahi ere, interesa betetzen ez bada dirua itzultzeko eskatu edo erantzukizun eskaerak egin ahal izango dira.

– 2024. urtean egindako jardueren memoria eta ordainketa ziurtagiriak aurkeztu ondoren gainerako ehuneko 25a ordainduko da.

## 14. Dirulaguntza justifikatzeko epea eta era

2025eko urtarrilaren 31ra arteko epean, dirulaguntzen onuradun diren erakundeek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

Justifikatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Diruz lagundutako gastuen justifikazio memoria, entitate onuradunaren ordezkariak sinatuta.

b) Fakturak, jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak; datu hauekin argi identifikatuta egon beharko dira:

Jaulkitzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

Hartzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ (ahal dela, elkartearen edo klubaren izenean).

Gastuaren xedea.

Data.

Faktura zenbakia.

c) Elkarateak edo klubak izan dituen gastu eta sarrera guztien zerrenda.

d) Zinpeko adierazpena, erakunde onuradunaren ordezkariak sinatua, gastua finantzatu duten diru sarrera edo dirulaguntzei buruzkoa, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

e) Egindako publizitate materialaren ale bat (kartelak, eskuko programak...).

f) Fakturak ordaindu izana egiaztatzeko dokumentazioa Honako hauek onartuko dira ordainagiri gisa:

Enpresa jaulkitzailearen zigilua duten jatorrizko fakturak, faktura ordaindu dela zehazten dutenak.

Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertu behar dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztu behar da, edota bankuaren zigilua izan behar du.

Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako edota zigilatutako ziurtagiria; bertan agertu behar dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

Posta arruntez jasotako jatorrizko banku laburpenak.

Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, dagozkion mugimenduak dituenak.

Emailaz jasotako banku laburpen elektronikoak edo transferentzia agindu telematikoak.

Jatorrizko erosketak agiriak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak.

Ez dira onartuko gastuen justifikazio gisa:

Honako hauek argi identifikatuta ez dituzten fakturak edo agiriak:

Jaulkitzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

Hartzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ (ahal dela, elkartearen edo klubaren izenean).

Gastuaren xedea.

Data.

Faktura zenbakia.

Araudi fiskala betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako konturako atxikipenei dagokienez.

### 15. Dirulaguntza itzultzea

Jasotako kopuruak itzuli egin beharko dira honako hauetakoren bat gertatuz gero:

a) Aurkeztutako eskaeran edo agirietan gezurrezko daturik eman bada.

b) Emandako dirulaguntza ez bada erabiltzen aurkeztutako eta onartutako programan aurreikusitako jardueretarako.

c) Gastuak behar bezala justifikatzen ez badira, fakturak eta ordainketa egiaztagiriak aurkeztuta, 13. oinarrian ezarritako baldintzen arabera; hasiera batean aurrekontuan sartutako gastuak dira justifikatu beharrekoak, gastu horiek hartzen baitira kontuan dagokien ehuneko ekonomikoa kalkulatzeko. Gastuen zati bat bakarrik justifikatzen bada, justifikatu gabe geratu den zatiari dagokion zenbatekoa itzuli beharko da.

d) Jardueraren benetako kostua baino handiagoa bada finantzaketa; kasu horretan, soberrakina itzuli beharko da.

e) Gainfinantzaketarik badago, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek dirulaguntzak edo laguntzak eman dituztelako, onuradunak Legutioko Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du, proiektuaren edo jardueraren kostuaren ehuneko 100 ez gainditzeko.

f) Oro har, oinarri hauetan, araudi aplikagarrian edo dirulaguntzaren kontzesioan ezarritako edozein betebeharrak betetzen ez bada, esaterako oinarri hauen 15. eta 16. puntuetan jasotakoa.

g) Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua jasotzen dituen gainerako itzultze arazoetatik edozein gertatuz gero.

Dirua itzultzeko prozedura Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera izapidetuko da, eta alkatearen, dirulaguntzak ematen dituen organoaren edo hark eskuordetzen duen organoaren dekretuaren bidez ebatziko da, eta entzunaldi izapidea egin beharko da beti.

Itzulketa horretarako ezarritako epean egiten ez bada, dagozkion berandutze interesak eskatuko dira, dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa bidezkoa dela erabaki arteko interesak, alegia.

#### **16. Kolaborazioak**

Kultura zabaltzeko kanpaina propioak garatzeko egokitzat jotzen badu, Legutioko Udalak, urtean zehar eta dirulaguntzaren zenbatekoaren arabera, elkarte edo klub onuradunek egin beharreko lankidetzak zehaztuko ditu idatziz.

Dirulaguntza jasotzeko baldintza izango da erakunde onuradunak berak udalerrian antolatutako kultura jarduera bat gutxienez antolatzea edo horretan laguntzea.

#### **17. Betebeharrak**

Udalak oniritzia eman aurretik, elkarrekin udalaren armarrria garatutako material guztietan jarri beharko dute (irudiak, kamisetak, etab.), dirulaguntza lortzeko aurkeztutako aurrekontuan gastu gisa jaso bada edo udalak erabat finantzatzen badu.

#### **18. Dirulaguntzak emateko arazoak aldatzea**

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako arazoietan egindako funtsezko edozein aldaketak ebazpena aldatzea ekar dezake.

#### **19. Arau hausteak eta zehapenak**

Dirulaguntzen arloko arau hauste eta zehapenei dagokienez, osorik aplikatuko dira Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluaren jatorriko arauak eta lege horren araudia onetsi zuen 887/2006 Errege Dekretuaren IV. titulua.

#### **20. Araudi aplikagarria**

Oinarri arautzaile hauetan jasota ez dagoen guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta Legutioko Udalaren Dirulaguntzak eta Laguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2005eko martxoaren 21eko ALHAOn argitaratua.